

ELA ETA LAB SINDIKATUEN PROPOSAMENA GIPUZKOAKO METALEKO HITZARMENAREN NEGOZIAZIOA BULTZATZEKO

Gipuzkoako metaleko negoziazioan, ADEGIk sortutako 9 hilabeteko blokeo luzearen ostean eta 4 greba egun arrakastatsu eta gero, berriro ere ikusten dugu ADEGIren jarrera atzerakoia jarraitzen duela, negoziazioari inongo aukerarik eman gabe eta sektoreak jasaten ari den egoerari jaramonik egin gabe.

ADEGI izan da, azken urteotan hitzarmenaren negoziazioaren aktore nagusi bat. Hitzarmenak azken 30 urteetan sektoreari egonkortasuna eman dio, nahiz eta negoziazioak ere gatazkatsuak izan diren. Baina ADEGIk atzera pauso handi bat eman du, eta azken urteotan ezezaguna izan den egoera batera eraman gaitu. Gipuzkoako Metaleko kideek urte luzeetako borroken ostean lortutako eskubide guztiak ezabatu nahi ditu. Lan baldintzak sortu ez duten krisi bat erabili nahi dute, Gipuzkoako negoziazio kolektiboaren eredu aldatzeko.

ADEGIk erabaki duen estrategia aldaketari ere, Madrilen negoziatzen ari den negoziazio kolektiboaren erreforma gehitu behar diogu. Etengabe jasotzen ditugun albisteak arduratu egiten gaituzte. Estatu mailako hitzarmenak bultzatu behar direla aipatzen da eta ultraktibitatea mugatu edo guztiz ezabatu nahi da. Erreformaren edukinak aipatutakoak izaten badira, metaleko hitzarmenaren desagertzea suposatuko luke.

Kontextu honetan larria da, Madrildik jaso dugun deia, estatu mailako akordioa berrezteko eta honen bitartez estatu mailako lehen hitzarmen estatala negoziatzeko. Geroz eta argiago agertzen da patronalaren helburua: Gipuzkoako hitzarmena desagertarazi eta hitzarmen estatal bategatik ordeztu. Guzti honen ondorioa, soldata txikiagoak, lanordu gehiago eta urteetan lortutako lorpen sozialen ezabapena.

ELAk eta LABek hitzarmen duin bat lortuko duen negoziazio bat hasteko garaia dela uste dugu. ADEGIren jarrera arduragabearen aurrean, ELAk eta LABk irailaren 14rako metaleko mahairako deialdia egiten dugu.

Deialdi honek helburu nagusi bat dauka: Negoziazioa bultzatzea. Horregaitik, gure plataforma erreibindikatiboetan aldaketak egingo ditugu, horren bitartez negoziatioari hasiera emanez eta indarrean dagoen hitzarmena hobetzeko helburuarekin.

Hilabete luzeen ostean non ADEGIren jarrerak, Gipuzkoako metaleko kideak gutxietsi egin dituen, irailaren 14an aldaketa sakon bat gertatzea exijitzen dugu.

Mahaian ELAk eta LABek egingo ditugun proposamenak ez badute sortarazten ADEGIren aldetik, inongo aldaketarik eta bilerak inongo edukirik izaten jarraitzen badute, metalgintzan langileen borrokak jarraituko du. Horregaitik ELAk eta LABek 9 greba eta mobilizazio egunerako deialdia luzatzen dugu: irailaren 27 eta 28a, urriaren 13, 14 eta 15a eta azaroaren 2,3,4 eta 5a.

Horregaitik, metaleko langile guztiak greba eta mobilizazioetan parte hartzeko deia zabaltzen dugu eta horrekin batera beste sindikatuei borrokarekin bat egiteko gonbidapena luzatzen diegu.

ELA

LAB